

iruner

189. zenbakia. 2010eko abendua

Asun Casasola,
Nagore Laffageren ama:
"Gogobeteta nago,
ahal izan dudan
guztia egin
dudalako"



Gizalegezko
jokabideak
bultzatzen dituzten
langileen zeregina.



Mahai teniseko
teknifikazio zentroa
Gain Gainen
eraikiko dute



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi
LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzaileen batekin.

Zoaz kruzeroan!!

Sartu zaitez bi
pertsontzako
bidai baten
zozketan
Ametsen
erosteagatik



Promozio honen balioa 2010 Azaroak 1etik Abenduak 31 arte

Gutxieneko erosketen zenbatekoa 500 Euro

sukaldeak | egongelak | bainuak | logelak | dekorazio komplementuak

Tekniko eta dekorazio proiektuak

Kompromezu gabe egiten ditugu presupuestuak

Altzariak zure etxera eramatea eta jartzea dohainik

4.000 m2 altzarien erakusketa





Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asumendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

4.- *Lapikoan:*

- *Hori bizitza!* Elvira Encabo eta Mariani Estanga.

6.- *Aurrez aurre:* Asun Casasola, Nagore Laffageren ama

8.- *Lapikoan:*

- San Migel-Anakako eremu berria, abian.
- Trenbidearen espazioa eraldatzeko akordioa.
- Gizalegearen begiraleak.

16.- *Tentaccion:* publieerreportajea

20.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

22.- *Kontsumitzaileentzako aholkuak.*

24.- *Kuttun gabineteko psikopedagogikoa:*
Jeloskor nago!

25.- *Eleak iruten*

26.- *Lerroz lerro.* Yurre Ugarte
Gasolindegian

27.- *Kultur Agenda*

29.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak.*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta
Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza

“Idaztea izan da gehien gogobete nauena”

Etxeko armairu batean milaka orri gordeak ditu. “Begira, hauek dira nik idatzitako 14 eleberriak eta hainbat ipuin, guztiak ere argitaragabeak”. Elvira Encabok (Irun, 1935) lan egiteari utzi zionean, idazluma hartu eta paper zuri baten aurrean jarri zen. “Ea zer gertatzen den”, esan zuen bere baitarako. “Orduan, norbaitek zer idatzi behar nuen esan bailit bezala, esaldiak atera zitzaizkidan. Ez zait batere kostatu hau guztia idaztea”. Argoiak Elkartearen 4 literatur lehiaketa irabazi zituen. Argialetxeetan ere sartu dira haren lanak; ez, ordea, liburu bilakatuta atera. Halere, Elvirari poza gailentzen zaio. “Egia esan, jarduera hori izan da nire bizitzan gehien gogobete nauena”. Autodidakta, langile amorratua eta, batez ere, emakume xaloa da. Anaka auzoan jaioa, bertan bizi da oraindik ere, Irungo gizarteak XX. mendean jasan dituen aldaketen lekuko. “Aita polizia nuen Anakan. Oso gizon ona, alaia eta auzoan oso maitatua”. Elvirak abeslari edo dantzari izan nahi zuen, etxeko bozkarioak hartararuta. Aitaren heriotzak, haatik, asmo hura bertan behera utzi zuen. “Amari laguntzeko 13 urte besterik ez nituenean eskola utzi eta Porcelanas Bidasoan lan egiteari ekin nion”. Etxera diru pixka bat gehiago eramatearren, garaike hainbat irundarren antzera, estraperlo-

Elvira Encabo



an aritzen zen. “Lagunekin bizikletaz muga igarotzen genuen, arrautzak, gurina, angulak eta, batik bat, kafea ekartzeko”. Senargaiak Sancheskyn ordu estrak egiten zituenez, bada, enpresa hartan jardun zuen bolada batez. “Garai hartan askoren helburua zen Palmeran sartzea, ongi ordaintzen zutelako”, gogoan du. “Lortu, bai lortu nuen, baina ezkondu nintzenez bota ninduten. Hala zen, behin ezkondu ta emakumeok ezin genuen lan egin”. Iparraldeko bidea hartu zuen orduan, 22 urtez alpagata fabrika aritzera eraman zuena. “Etxetik kanpo lan egiten genuenok zama handia genuen, etxeko lanen eta seme-alaben ardura ere gure gain hartu behar genuelako”. Elvirak berrogeita hamar bete zituen hartan, fabrika itxi zuten arte. “Orduantxe, denbora libre mordo bat nuenean, idazteari lotu nintzaion”. Dolores Medio idazle asturiarrak idazten jarraitzeko animatu ohi zuen. “-Baina ni analfabetoa naiz-, erantzuten nion”. Ez dio axola. Jende xumearentzat idazten du.

Mariani Estanga



“Ikastola nire etxea da”

Mariani Estangaren bizitza eta Txingudi ikastolaren historia korapilo estu batez lotuak daude, ezbairik gabe. Elkarrekin jorratu duten bide hori 1970ean hasi zen, autobuseko begirale lanei ekin zienean. Gerora, biltegiko arduradun ere ibili zen, harik eta duela bi urte erretiroa hartu zuen arte. Lana utzi, bai, baina eza-gutu dituen milaka lagunekin harremana betiko iraungo duen zilbor-hestea da. “Ikastola nire etxea da. Biziki maite dut”, dio bihotzez. Mariani tolosarra 1961ean etorri zen Irunera bizitzera, ezkonberritan. “Irun Tolosatik hurbil egon arren, niretzat beste mundu bat zen. Oso kosmopolita iruditu zitzaidan”.

Lotsarik gabe euskaraz mintzatzea txikitatik hartutako erabakia izan zen. *Zergatik egiten didazu kastellanoz?-galdegiten zion amonari-Nik euskaraz badakit eta!*

Bada, ez zuen zalantzarik egin alabaren ikastetxea aukeratzeko orduan. Ikastolaren gelak Oargin (Pasiotarren elizan) eta San Juan plazan kokaturik zeuden urte haietan lanari lotu zitzaion. “Garai haietan gurasook denetarik egiten genuen, nork bere aukeren arabera. Gauza da Zaldibitik zetorren andereñoa berandu iristen zenean nik haurren zaintza egiten nuela. Halako batean, bi ama etorri zitzaizkidan autobuseko arduradun izateko proposatuz. Eta halaxe hasi nintzen, hastapenetan musutruk, jakina!”.

Gaur egungo baldintzetatik eta erosotasunetatik urrun zegoen zeregina zen hura. “Pentsa

lineako autobus zahar haietan 110 haur eramaten nituela. Txikiak handien gainean eserita joan ohi ziren”. Gogoan du Jaitzubira jaisteko Peña Eneko bidea oraindik asfaltatu gabe zegoenean behin autobusen enpresako jabea haserretu zenekoa. *Bide horretatik ez pasa, autobusak hondatuko dizkidazue eta!*, esan zuen. “Beraz, ikasleak oinez eraman behar izan nituen, bai eta ikastolatik hurbil zeuden Goardia Zibilei laguntza eskatu ere”.

Giro politiko nahasiko urte haietan poliziaren trabak jasan zituen. “Hilero bizpahiru aldiz autobusetan sartzen ziren haurrak zenbatzera edota dokumentazioa eskatzera, modu zirikatzailean. Orduan, alaba joan ohi zen korrika ikastolako bulegoetara, berandu iritsiko ginela abisua ematera”.

Marianiren izaera zorrotza gogoratzen dute ikasleek. “Zorrotza, baina maitasunez”, argitu du. “Orain ikasleak kalean topatzen ditudanean goxotasuna adierazten didate”.

Bere zantzuak ikastolan dirau, *Mariani Pilota Txapelketaren* bidez. Alta, betiereko zantzu oroitzapena izaki, agurrik ez Marianiri.

Asun Casasola

“Nire ustez, delitu larriak epaitzeko herri epaimahaia ez da balekoa”

Urtebete igaro da alabaren kasuko epaia entzun zuenetik: Jose Diego Yllanesi homizidio delituagatik 12 urteko kartzela-zigorra ezarri zitzaion. Epaia Asunen itxaropenak zapuztu zituen, baita behingoz amesgaiztoaren etapa bat ixteko aukera ere.



- Epaitegi Gorenak erabakiko du Nagoreren kasua hilketa ala homizidioa izan zen. Itxaropentsu zaude?

Bai, konfiantza daukat. Frogei erreparatuz, argi dago hilketa delitua izan zela. Jakin badakit epaitegiak auzitegiko medikuaren txostena eskatu duela. Herri epaimahaia atzera bota

zuen larrialdi zerbitzuetara egindako telefono deiaren froga, hura Nagoreren ahotsa zela ziurtatu ezin zela argudiatuz. Hura giltzarri zen. Ondorioz, asasinatu zuela frogatzeko maltzurkeriaz jokatu zuelakoari heldu behar izan diogu; alegia, bere burua defendatzeko ezinari. Kontu horri ere herri epaimahaiak iritzi zion: kondenatuak harramazka-markak zituelako Nagorek defendatzeko aukera izan zuela. Azalpen hori ontzat ematea zentzugabekeria da! Baina... nolatan egingo zion, bada, Nagorek harramazka? Sastrakekin egingo zituen markak, Nagorek, ezbaiztuen ia azkazalik, jan egiten zituen eta!

Auzitegiko medikuaren txostenean, hain justu, garbi islatzen da eman zion astinaldi galanta, eta horren argitara ezinezkoa da Epaitegi Gorenak hilketatzat ez jotzea. Gerta litekeena da, nahiz eta kalifikazioa aldatu, kondena berberari eustea.

- Dokumentalean argi agertzen da hil zuela. Zein izan da jendearen erreakzioa?

Dokumentalean argi geratzen da telefono deia Nagorek egin zuela, hala ziurtatu zuen teknikariak. Abokatuak, ordea, giltzarri zen frogari irauli eta akusatua berak egin zitekeela argudiatu zuen. Eszena hori ikustean jendea isilik geratzen da. Ez bakarrik dokumentala ikusi duen jendea, orokorrean abokatu-bufetetako profesionalak ere konbentziturata daude agerikerikoa dela nork hots egin zuen larrialdi zerbitzuetara.

- Zuri esker, kasuak sekulako oihartzuna izan du. Gogobeteta sentitzen zara?

Bai, ahal izan dudana guztia egin dudalako. Bide horretan oso babestua sentitu naiz, eta ongi aholkatua. Erakundeak aldamenen izatea oso mesedegarria gertatu zait. Bai, zorionekoa naiz.



“Dokumentalean argi geratzen da Nagore izan zela telefonoz hots egin zuena: froga hori erabakigarria zen”

- Nagoreren kasuak zer jarri du zalantzan?

Herri epaimahaia ez dela kasu guztietarako balekoa, manipulagarria delako. Pentsa: abokatu batek Nagoreren hiltzailea edozein izan zitekeela ere esan zion epaimahaiari! Gertatutako guztia zalantzan jarri eta akusatua antzezpenarekin, bada, hala erraza da epaimahaiak dudak izatea.

Epaile profesionalen esku geratu izan balitz, hilketa-sententzia ebatziko zuten. Baina orain horretan ez dago atzera bueltarik.

Nire ustez, herri epaimahaiak profesionalen aholkua behar du; epaimahai misto baten alde nago. Delitu larriak epaitzeko, behinik behin, nik uste dut herri epaimahaiak ez duela balio.

- Zer moduz zaudete zu eta familia?

Orain, itxaropentsu. Etapa itxi beharra daukat, dolua egin ahal izateko. Oraindik ezin dut, egun guztia zurrumbilo batean bezala igarotzen dudalako.

San Migel-Anakako auzo berria, abian

Irungo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu duten hitzarmenari esker, abian jar liteke San Migel-Anaka.

Irungo Udalak hainbat lursail Eusko Jaurlaritzari saltzeko akordioa berretsi du Osoko Bilkuran, 7.000.000 inguru euroren truke, Irunen Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeko.

Irungo alkate Jose Antonio Santanok eta Obra-Ordezkarik Miguel Angel Paezek jakinarazi dute San Migel-Anaka eremua 2011n zehar abian jarriko dela, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza

Sailak onartu duelako Udalak eremu horretako hainbat lursail erosteko egin zion eskaintza, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko xedez. "Iñaki Arriola sailburuak baieztatu du 7 milioi euro inguruko ekarpena egingo dela lurzoruak erosteko; hain zuzen ere, San Migel Anakan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko. Albistea oso positiboa da guretzat, diru horri esker urbanizazioan lanean hasiko gare-lako eta eremu hori desblokeatu ahal dugulako; gainera, udalerriko Babes Ofizialeko etxebizitzaren poltsa handi bat izango da", adierazi zuen alkateak.

Jose Antonio Santano oso pozik agertu da Eusko Jaurlaritzarekin itxi den akordioarengatik. "Errealitate kutsua ematen dio urteetan



San Migel-Anakako eremu berriaren maketa.

eginkizunen zerrendan egon den proiektu bati, orain arte ziurgabetasunez inguratuta egon baita; gaurtik aurrera, gure hirian jardunean diharduen beste errealitate bat izango da", adierazi zuen.

Miguel Angel Paez Etxebizitzaren Udaleko arduradunak gehitu duenez, "San Migel-Anaka abian jartzearekin eta udazken honetatik aurrera abian jarri den Oñaurre eremuarekin, Irungo Udalak BO etxebizitzetarako lurzoruaren %75 aktibatu du; hori babes ofizialeko etxebizitza babestuekiko konpromiso tinko bat da, orain arte askatu gabeko korapiloa genuena". Ildo berean, eskerrak eman nahi izan dizkio Eusko Jaurlaritzari, urtebetean itxi baitira erakunde harekin udalerriko operazio handienetako bi.


Orain burdinbideak
dauden gune honetan etxeak
eraikiko dituzte

Geltoki
berria

Aduana

Burdinbidearen
estaltzea

Kolon ibilbideko
gaur egungo
zubiaren kokalekua



Donostia hiribide
berria

Belaskoeneko
hiribide berria

Topoaren ibilbidea

Euskotrenen
geltokia egun

Udalak trenbideko eremua eraldatzeko akordioa lortu du

Irungo bihotzean dauden 53 hektareako espazioa birmoldatzeko urrats erabakigarria eman du Udalak: proiektuak ukitzen dituen erakunde guztien arteko adostasuna. Joan den azaroaren 25ean operazioa ahalbidetuko duen erakunde-arteke protokoloa ixteko, Madrilen bildu ziren honako erakundeetako ordezkari hauek: Sustapen Ministerioa, Eusko Jarularitza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Irungo Udala, Renfe eta Adif.

Helburua, gaingiroki azalduta, Belaskoenetik Plaiaundira bitartean irabaziko diren 200.000

m²etan AHTari egokituko zaion tren geltoki intermodal berria eraikitzea baita beste hainbat proiektu ere, hala etxeak, nola parkeak edota unibertsitate eremu bat. Akordioaren arabera obrak lurzoruei dagozkien hirigintzako aprobetxamenduei esker finantzatuko dira; baina erakundeen inbertsioak ere beharrezkoak izango dira.

Operazioak erabateko aldaketa ekarriko du, luze emango du, ordea: 15 bat urte. Lehen esku-hartzeak 2011-2012an hasiko dira eta geltoki intermodala 2016rako burutuko da.



Gizalegearen begiraleak

Goizean, Irungo udaltzaingoaren egoitzan biltzen dira egunean zehar burutuko duten jarduera antolatzeko. Txaleko gorria jantzi, banatzeko esku-orriak poltsan sartu, poltsa aldean eraman eta kalera irteteten dira lanari ekiteko. Gizalege-agentek dira. Euren egiteko nagusia hiritarrei Gizalegeari buruzko ordenantza-
ren berri ematean eta iradokizunak jasotzean datza.

Euskadi + Planari esker, uda ondoren Irungo Udalak lan berezi hau egiteko 4 pertsona kontratatu zituen. Berriki, Gureak Taldeko lau langile gehitu zaizkie, lanaldi erdiz.

Goizeko lehenengo orduan, Santi Canales Bizikidetza Unitateko ordenantza-ikuskatzailarekin biltzen dira, zeregina planifikatzeko. “Orain arazoak sortzen diren lau alorretan lanean ari gara: animalien eramatean, hiri altzarien tratamenduan, kaleen garbitasunean eta hondakinen bilketan. Agenteek ahoz informatzen dute eta gai zehatzei buruzko esku-orriak banatzen dituzte. Udalaren azken muturreko baliabidea isuna jartzea delako aurrera eramaten dugu informazio ekimen hau”.

Eta lanak emaitzak eman ditu, 2005ean ordenantza berria onartu zenetik. “Bai, hala da, -dio Santik- jendea betebeharrak barneratzen ari da; ondorioz, gizalege-agenteen eguneroko lanean lehen sortzen ziren tirabirak ez dira ematen orain”.

Bi agenteren lanegun bat

Irunerok Pilar eta Isabel gizalege-agenteeekin lanegun bateko tartetxo bat igaro du. Aldean daramatzaten esku-orrien artean, txakurren jabeei zuzendutakoa. Dunboan txakurra paseatzen ari den gizon bat ikustean, harengana jo dute:

- *Egun on. Begira, hemen duzu txakurren inguruan ordenantzak ezartzen dituenak.*

- *Nik gorotzak biltzen ditut; baina bada jasotzen ez dituen jende asko*”- ihardetsi die gizonak.

Gorotz asko ikusten dituzten eremuetako atarrietan txakurren jabeek jaso behar dituztela gogoratzeko kartelak itsasten dituzte. “Neurri hau eraginkorra da. Bada eskertzen digun jendea, batez ere gorotzak bildu beharraz bizilagunak ohartarazteaz gogaiturik daudenak”.

Isabel eta Pilar Luis Marianoko dendetara abiatu dira, non merkatarietara dituzten betebeharren berri eman baitie: hondakinak, garbitasuna, erakustokien ingurukoak, eta abar.

Merkatari batek iradokizun bat egin die agen-



teei: “Eskertuko genuke Luis Marianon zaborrontzi-multzo pare bat gehiago jartzea, behinik behin kartoa biltzekoak”.

Kalera bueltan, adineko bi emakumeri esku-orriak luzatu dizkiete:

- *Nik dena betetzen dut, dena!*- esan du batek hiritar zintzoa dela argi utzi nahian. Jarraian, kexu agertu da skaterrak espaloietan ibiltzeak dakarren arriskuaz.

Pilarren eta Isabelen esperientzia orain arte oso ona izan da. “Bai, jendearen harrera ona da. Maiz, lana eskertzen digute, eta bizikidetza edo ingurua hobetzeko iradokizunak egiten dizkigute”.

Ibilbidearen hurrengo geltokia Sarjia parkea da; bertan emakume bati zaborren inguruko arauen berri eman diote.

- *Nik birziklatzen dut; baina senarra ez dago kontzientziatuta eta arrastoan sartzen ez badut, hondakin guztiak zaborrontzi berdera botatzen ditu!*

Txingudiko langile bat topatu dugu parkean. Haren lanak Gizalege jokaerari buruzko ordenantzeekin badu zerikusirik; izan ere, lanaldi osoan zehar pintadak ezabatzea emana baitago, ur-zorrotada handiko mahuka potente batez lagunduta.

Gizalegearen begiraleek, bitartean, lanean jarraitzen dute.

Mahai Teniseko Teknikifazio Zentroa Gain Gaineko parkean eraikiko da

Eginkizun dagoen Gain Gaineko parkean Irungo Mahai Teniseko Teknikifikazio Zentroa eraikitzeko proiektua joan den urteko ekainean esleitu eta aurtengo azaroan onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak.

Zentroa egokitzeko eraikina Olaketa kaleko 25. zenbakia-
ren ondoko etxebizitzetatik hurbil egongo da, Prudencia Arbide kalean hasi eta Gain Gainean parkean bukatzen den eraikuntza-garapenaren amaiera gisa. 58.000 m²-tik gora izango ditu hiri parke handiak .

Kirol instalazio berria

Parkearen barnean, idatzitako proiektuak oso kontuan eduki behar izan du kokalekua, baita



Eraikinak zur naturaleko oholetadura izango du goiko aldean.

lurraren ezaugarriak ere, malda handia baitu. Jakina, halaber, Mahai Teniseko nazioarteko federazioaren arau teknikoen ezaugarri guz-

tiak ere kontuan hartu behar izan ditu. Leka Enea mahai tenis klubaren laguntzaz landu da hori guztia. Izan ere, hala zioen Belen

Gabiria kalea, 15 - 179
Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxa
943 63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIORAKO PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK

Sierra Kirol Udal Patronatuko lehendakariak: "Mahai tenisaren alde Leka Enea Klubak egin duen lan sakon eta handia burutu egingo du Zentroak. Klub horrek urteak daramatza oinarrizko kirolaren eta emakumezkoen kirolaren alde lanean; beraz, beharrezkoa du instalazio egokia, jende gaztea prestatzen jarraitzeko eta kategoria hobereenen mailako lehiaketa handiak erakarri ahal izateko".



Teknifikazio Zentroaren eraikinaren inguruan egoki txertatuta egongo da.

Eraikinaren ezaugarriak

Eraikinak hormigoia agerian izango du beheko aldean, eta zur naturaleko oholeztadura gainerakoan, dagoen malda handia gaindituz betiere. Hala, bada, goiko aldean terraza bat egongo da, zentrotik lokal sozialarekin loturiko sarbide eta egoteko lekuarekin; beheko aldean, berriz, sartzeko plaza bat izango du, egunero sartzeko eta materialak sartu eta ateratzeko, eta abarretarako. Eraikinak egu-

neroko entrenamenduetarako programa izango du, eta mahai teniserako eskola; halaber, lehiaketa, erabilera eta etor daitekeen jendearen emana ere kontuan hartu dira. Eraikinak bi solairu nagusi eta tarteko solairua izango ditu. Entrenamendu edota lehiaketarako kantxak solairu nagusietan egongo dira.

Miguel Angel Paez Obra ordezkariak adierazi du orain-

goz diru-laguntza izango dela Foru Aldunditik, eta espero du laster baieztatu ahal izatea zentro honetarako aurreikusitako ekarpen ekonomikoa kirol instalazioetarako inbertsio berezien barnean. "Toki esparrutik harantzago joango den instalazioa izatea nahi dugu, gure inguruan mahai tenisaren erreferentzia bilaka dadin, bertan maila handiko lehiaketak egin ahal izateko".



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISĒTAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen
karrika)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA

(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Uranzu,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKAR-
TEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea
k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).

Kudeaketa integral multiteknikoa

Gestión integral multitécnica



*Mantenua eta instalazioak
Proiektu teknikoak
Elektrizitatea
Telekomunikazioak
Klimatizazioa
Iturgintza
Libraketak*

Tlf: 943 10 20 24

Mantenimiento e instalaciones
Proyectos técnicos
Electricidad
Telecomunicaciones
Climatización
Fontanería
Desatascos

Tlf: 943 10 20 24

Tentaccion: edozein ekitalditarako karparik dotoreenak



- Zer da Tentaccion?

Gaztea baino gazteagoa den enpresa bat, 2010aren erdi aldera abian jarri baikenuen. Enpresa osatzen dugunok batez ere eraikuntza-zen eta marketingaren alorreko teknikariak gara. Denok ados gaude ideia batean: behin behineko arkitekturaren munduan gauza berriak egin daitezkeela, eta egin behar direla; desmuntagarriak diren materialez, egiturak nahiz espazioak eraiki, eta erabiltzeari uzten zaienean, beste leku batean beste egitura batzuk muntatzeko baliatu.

Merkaturatu dugun lehenengo produktua neoprenoaren antzeko ehun tekniko batez egindako karpak dira, estetika oso ikusgarrikoak. Babesa da funtziorik behiena (ura, eguzkia, haizea...); baina, aldi berean, espazio oso bereziak sortzen dituzte, non eta jendea biziki gustura senti daitekeen; adibidez, bazkari batean, koktel batean...

Hainbat arrazoi tarteko (tabakoaren legea, kostaldeko txiringitoena bezalako hirigintza legeak...), ostalaritza sektoreak egitura desmuntagarriak eraikitako espazioak moldatu beharko ditu. Guk era guztiz ikusgarrian egitea proposatzen dugu.

- Zein da zuen eskaintzaren eta ohiko karpenerako aldeak?

Ezberdintasun estetikoak begi-bistakoa da; baina, gainera, gure produktuen egitura askoz ere malguagoa da. Maldetan instala daitezke, zuhaitzak edo arrokkak bezalako oztopoak ekidin eta inguru irregularrei hobe egokitzen zaizkie. Eraikinen

estetikan, hobeki integratzen dira haiei itsasirik daudenean. Halaber, isolamendu termikoa hobe da.

Bestalde, hobekuntza estetikoak diru aurrezpena dakar, ekarri ere, maiz PVCko ohiko karpak forratu behar izaten baitira giro berezia lortzearren. Gure karpak barrutik bezain politak dira kanpotik.

- Zertarako erabil daitezke?

Alokatzen direnak, ekitaldi publikoetarako -jaialdiak, lehiaketak, kirol txapelketak, kontzertuak...- nahiz pribatueterako -ezkontzak, jaunartzeak, aire zabaleko ekitaldiak...-

Saltzen direnak, honako kokaleku hauetan jartzeko izan ohi dira: jatetxe, hotel, landa-etxe, kirol klub edota ospakizunetan espazializatuta dauden establezimenduetan. Partikularrek ere etxean jar dezakete, aFterpe ederra sortuz.

- Zein ezaugarri dute materialek?

Karpa tenkatzeko erabiltzen dugun sistema Afrikako beduinoen karpetakoetan oinarriturik dago. Ehuna, berriz, bilakaera tekniko bereziko da: elastikoa; UVA izpiak iragazten ditu eta urarekiko erabat iragazgaitza da. Halaber, M2 su-araudiarekiko homologatua da, Espainiako udal gehienek exijitzen dutenez.

- Karpa jarri aurretik, bezeroak ikus dezake nola geratuko den?



Aurrekontua fotomuntaketa batez lagunduta doa, non karpa jarri nahi den tokian karparen irudia txertatzen den. Gaur egungo argazki-programa informatikoei esker, muntaketa birtuala eta emaitza erreala % 95ean dira berdinak. Hori horrela, jarri aurretik, neurriak, koloreak, eta abar hobeki aukera ditzakegu.

- Zein da zuen bezeroen gogobetetze-maila?

Josu Muguerza, Elgoibarko Belaustegi jatetxearen jabe eta bertako sukaldariburua, gure lehengoko bezeroa izan zen. Maiatzean karpa bat erosi zuen. Hona hemen haren iritzia: "Jatetxeko kanpoko jantokia euritik eta eguzkitik -batzuetan ere gehitxo izaten baita- babestua behar nuen beti. Tentaccion-en karpak orijinalak iruditu zitzaizkidan eta, lan taldea, profesionala. Azaltzen nien arazo guztiei irtenbide bana proposaten zidaten. Esaterako, pikondo batek eta zenbait mahatsondok traba egiten zuten. Irtenbide teknikoa eskaintzen zidan beste olan edo karpa sistema konbentzionalik ez nuen topatu; are gutxiago hain modu polit eta ikusgarrian. Gainera, bikain moldatzen zaio gure baserriaren estiloari, 400 urte dituen euskal eraikuntza tradizionala baita.

Karpa arrakastatsua izan da, hain zaila gertatu den uda honetan, adibidez, lagungarria, jendeak kanpo aldean otordua hartzea eskatzen zidalako. Udan, kostua amortizatu dut; gainera, oso diru



www.tentaccion.es

607 33 35 36

gutxiaren truke salmenta/errenta zerbitzua kontratatu dut;hots, nahi dudanean karpa desmontatzen didate eta, garbitu ostean, datorren uda arte gordetzen didate.

18an babesa eman!



GIZA KATEA

19:30etan

Dunboako Anbulatoriotik

orain!
Legalizazioa

Gora ezker abertzalea!



PROGRAMAZIOA

2010-2011

Txingudiri buruzko programak

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:30-9:00	Euskadiko berrien laburpena	Euskadiko berriak (Errepikap.)			
9:00-9:30	Txingudiko berrien laburpena	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
12:30-13:30	Foro Abierto (Errp.)	Tiempo Real (Errp.)	Gipuzkoako gaiak (Errp.)	Foro Abierto (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
13:30-14:00	Txingudiko berrien laburpena (Errp.)	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
17:30-18:30	Foro Abierto (Errp.)	La Banatua (Real Union) (Errp.) 17:30-19:00	Tiempo Real (Errp.)	Hablando Claro (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
20:30-21:00	Euskadiko berriak				
21:00-21:30	Txingudiko berriak				Asteke berrien laburpena
21:30	La Banatua (Real Union) 21:30-23:00	Euskadiko magazina 21:30-22:30			Zinea
		Tiempo Real 22:30-23:30	Hablando Claro 22:30-23:30	Micrófono Abierto 22:30-23:30	

Larunbat eta igandeetan

12:00-1400 Asteke Txingudiko Berrien errepikapena	20:30-22:30 Asteke Txingudiko Berrien errepikapena
------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------

Larunbatetan

18:00-19:00 Micrófono Abierto (Errp.)

Muganek Merkagune sariak banatu zituen bere 15. urteurrenean



Saridun guztiak.
Arg: Gerardo Garcia

Irungo Merkatarien Elkartek, MUGANek, Irungo Hiri Merkataritza-Merkagune sariak banatu zituen, joan den azaroaren 27an antolatutako ekitaldi berezian.

Sari nagusia; alegia, Urteko Merkatariaarena, Aguirre gozotegiak eskuratu zuen, “eskulangintzaren tradizioa bizirik mantentzeaz gain, aurtien denda berri bat ireki baitu, Donostian”. Merkataritza Ibilbidearen saria Amuebladora de Grosek jaso zuen. Berrikuntzaren saria, Luis Mariano zapata-dendak, denda berri eta handiago batera lekualdatzeagatik. Merkataritza Sormenaren aitortza Gaztelumendi tabernarentzat izan zen.

Muganen 15. urtemuga kari, beste 15 sari eman zituen, guztiak ere ohorezkoak, Merkataritzari Dedikazioa modalitatean: Boutique Urmendi (irekiera urtea: 1985), Alberto Gizonezkoentzako Moda (1983), Galerias Garcia (1983), MDT (1975), Arano jatetxea (1975), Aliprox Rafa (1972), Zurich Aseguruak (1970), Gonzalez kirolak (1968), Muriel margoak (1966), Herrero oinetakoak (1964), Merche Gizonezkoentzako Moda (1964), Manolo taberna (1960), Luis Tolosa inprimategia (1958), Oyarzabal lurrindenda (1957), Los Boes (1955). Bestalde, *Irun, Merkataritza eta Hiria* Argazki Lehiaketako sari-banaketa ere egin zen.

Brasil Irunen eta Navegavela, sarituak

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Brasil Irunen gozodenda eta Hondarribiko Navegavela turismoaren sektoreko enpresa saritu ditu, Gipuzkoako Merkataritza Enpresaren Sarien barruan. Bidasoa Bizirik-ek eskualdeko bi enpresa hauek sarietara aurkeztu zituen. Brasil

Irunen-ek Salmenta-gunearen Diseinuaren kategorian golardea jaso zuen, eta Navegavelak, Zerbitzu Enpresa onenarenean. Hector Barrenetxek eta Rosa Guisasolak 2010eko Gipuzkoako Merkataritza Onenaren saria jaso zuten.

98.000 kilometro oinez egin dituen erromesa Udalaren sms bidezko informazio zerbitzua



Jose Antonio Garciani *Pellegrino* deitzen diote. Ongi merezitako goitizena da, historiako erromesaldirik luzeena burutu baitu. 98.000 kilometro oinez korritu ditu, hots, munduari bi bira eta erdi ematearen balio-kidea. Azaroan Irundik igaro zen, Santiagora zihoala. Handik Cadiz sorterrira bueltatuko da

behin betiko.

Jose Antonio duela 9 urte abiatu zen, lanean ari zen arrantzuntziaren hondoratsetik bizirik atera zelako Karmengo Amari eskerrak emateko. Bederatzi orduz bi gorpuren gainean egon zen, harik eta erreskatatu zuten arte; ondoren, hogeii hilabete behar izan zituen guztiz osatzeko.

Irungo Udalak teknologia berrien aldeko dema egin du, azken urteotako ildoari jarraiki. Oraingoan, hiritarrei sakelako telefono bidez informazioa eskaintzeko zerbitzua aurkeztu dute Miguel Angel Paez lehen alkateordeak eta Iñigo Markos komunikazio arduradunak. Zerbitzu berriko harpidedun izateko, eskaera-orrria bete behar da, eta hiriko hainbat tokitan jarriko diren gutunontzietan sartu; Artalekun, Martindozean edo Irungo La Sallen, besteak beste. Beste bide bat Irungo Udalaren web orria baliatzea da: www.irun.org-n sartu eta informazio pertsonala eman behar da, eskaerazilearen interesekoak diren gaiak zehaztuz. Horrela, erabiltzaileari igortzen zaion informazioa hari egokitutakoa izango da eta berehala iritsiko zaio.

Zerbitzu berri hau abian jarri da gaztetxoenganaino iristeko, beste arrazoi batzuen artean, gaztetxoak baitira, hein handi batean, komunikatzeko bide berriak erabailtzen dituztenak.

Erretzeari uztea eta kirola egitea uztartzen dituen ekimena

Erretzeari uzten lagundu eta kirola egitera bul-tzatu. Horixe *Ohitura Aldatuz* ekimenaren helburua, AECC Minbiziaren Aurkako Elkartek, eskualdeko anbulatorioek nahiz kiroldegiek eta Pzifer laboratoriorio farmazeutikoak antolatuta, Irun eta Hondarribiko udalen laguntzaz.

Urtarrilean abian jarriko den programa horretan parte hartu ahal izateko baldintza izango da erretzaileak bere azturari uztea eta aldi berean

jarduera fisikoa egiteko konpromisoa hartzea. Urrats hau ematera deliberatzen

denari programaren bidez laguntza eta erraztasunak emango zaizkio. Interesa dutenek familia-medikuarengana jo behar dute, eta haiexek emango dizkiete argibide guztiak.



Kontuz etxez etxeko salmentarekin

Artikulu honetan, ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen Elkartek eta KIUB Kontsumo Irungo Udal Bulegoak etxez etxeko salmentetan iruzurrak gertatzen direla ohartarazi nahi dute, bai eta iruzurra saihesteko gomendioak eman ere.



Koltxoien kasua

2009ko uztaillean, EKA Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartek publikoki salatu zuen etxez etxeko salmentako enpresa bat praktika oldarkor eta iruzurrezkoak erabiltzen ari zela, Osakidetzaren izena beita gisa baliatuta, terapeutikoa eta oso garestia den koltxoi bat saltzeko, batez ere adineko jendea-ri. Orain, berriro ohartarazi du Distribuidora Cultural Ayala enpresak bere horretan jarraitzen

duela.

Aipatu enpresak Bilbon dauka egoitza. Ofizialki, “liburu, egunkari eta papergintza, idaztoki, marrazki eta arte ederretako artikuluen txikizkako merkataritzan” aritzen da. Bere benetako jarduera, ordea, hauxe da: komertzialak etxeetara doaz, adineko jendearen bila batez ere, osasunaren inguruko inkestarekin. Komertzialak bata zuriz eta medikuntza tresneriaz hornituta agertzen dira.

Itaunketa-papera utzita, egun batzuen bueltan haren bila itzultzen dira. Orduan, sendabide mirakuluzkoa eskaintzen dute: terapeutikoa omen den koltxoi bat, Osakidetzaren beraren artamendua eta diru-laguntza dituela esanaz. Gezur hutsa den diru-laguntza horri esker, merkatuan 3.000, 4.000 eta 5.000 euro ere balio omen duen koltxoa 1.200 inguru eurotan saltzen dute haiek, epeka ordaintzeko modua ere eskainiz.

Halako pagotxa lortzeko, bezeroak 30 euroko seinale bat ordaindu behar du; hortik aurrera, hilabeteroko ordainketak, noski.

Enhunka alerta-mezu Interneten Distribuidora Cultural Ayalari buruz

Enpresa horren bisita jaso zuen Castro Urdialeseko emakume batek kexa azaldu zion Kontsumitzaileen Elkarteari. Besteak beste, hauxe zioen: “Nire datu pertsonalekin betetzeko orri bat zegoen. Ez nuen ulertzen zergatik ezin nuen unean bertan bete, bost gurutze ipintzea besterik ez baitzen”.

Mesfidati, Interneten ekin zion informazio bila eta kontsumoko zenbait forotan alerta-mezu pila bat aurkitu zituen. Gehienetan berdina edo edo berdintsua: adineko jendea-ri koltxoi miresgarri bat saldu dio enpresa horrek, eta iruzurraren biktimaren seme-alabek gertatutakoaren berri ematen dute. Horietako batek hauxe dio: “Nire amari era guztietako gezurkeriak esan zizkieten. Akaroen aurkako koltxoa, ortopedikoa, artilez egina... 10 egunetan diferentzia nabaritu zuela... Ez dira leloak, ondo baitakite produktua itzultzeko zazpi eguneko epea dagoela... Paregabeko aukera aprobetxatzen ez bazuen, 5.000 euro ordainduko zuelakon gero dendaren batean... Unean bertan erosiz gero, berriz, erloju bat, lepoko bat, belarritako bi eta tentsiometro bat oparitu zizkieten. Interneten


bilatuz, ezaugarri bereko koltxoi bat ikusi nuen 276 eurotan salgai. Amari 1.100 euroren truke erosarazi zioten”.

EKAn, erreklamazioak

2008an bi erreklamazio eraman genituen EKAn enpresa horren aurka. Horietako bat Erromoko senar-emazte zahar bati eta Sopolako andere bati saldu zien koltxoi banaren ingurukoa. Haien seme-alabak salmenta atzera botatzen saiatu ziren, baina enpresak oztupoak ipintzen zituen. EKak epaitegietara eramateko mehatxua egin zion eta orduan bai: Distribuidora Comercial Ayalak koltxoiak eraman eta seinalea itzuli zien kasu bietan.

Salmenta deuseztatzeko era guztietako oztupoak

Interneten, partikular batek kontatzen du Distribuidora Cultural Ayalak amari erantzun ziona, koltxoa itzultzen saiatu zenean. “Zertarako sinatu zenuen orduan? Guk ez dizugu pistola bat buruan ipini. Enpresa serio bat gara eta hau ez da egiten”. Donostiako kontsumitzaile batek EKari honako hau kontatu zion: Minbiziak jota zegoen amari koltxoa saldu zioten. Amaren etxera heldu zen hain justu koltxoa heltzear zegoela. Garraiolariari berriro eramateko esan zion. Buelta pila bat eman ondoren, enpresarekin hitz egitea lortu zuen 30 euroko sei-



nalea itzul ziezaioetela eskatzeko. Traba anitz gaudituz eta gero, enpresak seinalea itzuli eta kontratua deuseztu zuen.

Atzera egiteko eskubidea

- Etxez-etxeko salerosketetan bezeroak atzera egiteko eskubidea du 7 egun naturaleko epean.

- Hasteko, etxetara doazen komertzialek eskubide hori azaldu behar diote bezeroari.

- Kontratuan bertan ere eskubide horri buruzko aipamen argia, ulergarria eta zehatza egon behar da, karaktere nabarmenetan eta bezeroaren sinadurarentzako tokiaren gainean.

- Kontratua sinatuta, haren kopia bat eman behar diote bezeroari, baita atzera egiteko eskubide horri buruzko dokumentu bat ere.

- Nola gauzatu, bada, eskubide hori? Enpresarekin kontaktatu, burofaxen bidez hobe, eta erosketa deuseztatu nahi dela argi adierazi. Une horretan bertan enpresak kontratua baliogabetu behar du, seinalea itzuli (egon bada) eta bezeroaren datu guztiak betirako ezabatu.

Bidasoako Kontsumitzaileen Elkarteak (ACUBI) argitaratutako testua, Irungo Udalaren laguntza

Etkez etxeko salmentaren aurrean kontuan izateko gomendio orokorrak.

- Atez ateko salmenta (edozein produktu edo zerbitzuren, gasa edo argindarra zein entziklopediak edo koltxoiak, esaterako) legezkoa da. Baina kontu handiz ibili behar dugu, hainbatetan iruzurrak egiten direlako.

- Komertzialak etxera datozkigunean, lehena da haien identifikazioa eskatzea.

- Eskaintza interesgarria irudituz gero, idatzizko informazioa uzteko esan komertzialei, behar

dugun denboraz eta lasaitasunaz dena ondo irakurtzeko eta erabakia hartzeko.

- Ez dugu inolaz ere unean bertan ezer erabaki, erosi edo sinatu behar.

- Lasai pentsatu eta, benetan interesatzen bazaigu, deituko diegula esango diegu.

- Hurrena, komertzial horien enpresarekin hitz egin eta harekin baieztatu guztia.

- Orduan bai, komertzialari deitu erosketa egiteko, edo enpresarekin zuzenean egin erosketa.

- Beste aholku garrantzitsu bat: ez diezaiegun eman inolako datu pertsonalik. Hainbatetan eskatzen digute gure fakturaren bat haien eskaintzarekin aurreztu omen dezakeguna neurtzeko. Gure fakturatan datu sentibera asko daude, kontu korrontearen zenbakia, besteak bestek, eta hori ezin zaio etxera datorkigun edonori erakutsi.

Jeloskor nago! Inbidia dut!

Jeloskeria eta inbidia emozio desatseginak izan arren, emozio guztiak bezalaxe, badute gizakia bere ingurunera moldatzeko funtzioa. Bi emozio hauek elkarrekin joan badaitezke ere, bereizten ikastea garrantzitsua da oso, bata



edo bestea sentitzeak funtzio eta biderapen ezberdina dutelako. Gure gizartean, emozio hauek oso gaizki ikusiak izan dira, bekatu larrizat hartuak, hain zuzen. Baina gizarte eredu honek pertsonen arteko konparaketa jarraia eta gizarte klase ezberdintasuna ere bideratzen du. Nola ez gara, bada, jelos edo bekaizti sentituko? Inbidia eta jelosia emozio negatibotzat ditugunez eta oso gaizki ikusiak daudenez, emozioen biderapen inteligente edo adimentsuan egitea zaila da oso. Ez gaituzte hezten emozio hauek inteligenteki bideratzeko, ez dugu emozio hauen kontzientzia, onarpena eta ulermena gidatzen. Baina argi dago sentitzen ditugula eta ahal den neurrian inteligenteki bideratzea funtsezkoa dela. Beraz, azter dezagun haien funtzio eta biderapena. Oraingoan, helduaren edo gaztearen ikuspegitik (haurrena hurrengo atalerako utziko dugu):

- **Jelos** sentitzen garenean pertsona zehatz baten jelosia sentitzen dugu, pertsona horrek maite dugun norbait kenduko digula sentiarazten gaitu eta. Hau da, jelos

sentitzean, maite dugun pertsona galtzeko beldur sentimendua indartsuki pizten zaigu, edo geure lekua kolokan dagoela iruditzen zaigu. Adibidez:

- ◆ Nire mutil lagunak neska bati maitekiro begiratzen badio, neska

horren jelos izan gaitetzke.

- ◆ Gurasook eta senideak, beste alabari kasurik egin gabe haur jaioberriari begira denbora luze ematen badugu, gure alaba haur jaioberriaz jeloskor senti daiteke.

Jelosia-sentimendu hau erreala edo irrealia izan daiteke; hau da, benetan dagoen ala ez maitea galtzeko aukera.

Galtzeko aukera benetakoa denean:

- ◆ Demagun gure lagun minarekin aspaldi honetan gutxitan egon garela eta beste lagun batekin barrez ikusten dugula. Jelos sentitzen gara, eta bi modutan bidera dezakegu jelosia:

Lehena: Neska mespretxatuz: a ze neska tuntuna, barre zuria du... Sentimendu horrek gaizki sentiarazten gaitu; sentimenduaren energia, bada, negatiboki atera eta jelosia ez da positiboki bideratzen.

Bigarrena: Jelos sentitzearen kontzientzia hartu, onartu eta ulertuta: Zer da sentitzen dudana hau? Jelos naiz, Amaia primeran pasatzen ari delako norbaitekin. Ai! Egia da

azken bolada honetan ez naitzela Amaiarekin egon. Jo! Harekin egon nahi dudala ohar-tu naiz, oso jatorra da eta ongi sentiarazten nau. Deituko diot, hori da: deitu behar diot!

Galtzeko aukera benetakoa ez denean

Hala ere, tamalez, maiz jelsia ikusten dugu halakorik ez dagoenean ere; orduan argi geratzen da jelsiaren zergatia gure segurtasun faltan dagoela. Azken finean, ez dugu gure burua nahikoa baloratzen, autoestimua baxua dugu, ez ditugu gure ezaugarri positiboak ikusten eta, ondorioz, besteek gurekin egon nahi ez izatearen beldur iraunkorra dugu.

- ♦ Bikotearen kasuan, adibidez, nahiz eta hark behin eta berriro maite gaituela adierazi eta guk sinetsi, gure bikotea beste mutil bati begira edo harekin hitz egiten ari denean utziko gaituela sentitu ohi dugu. Halakoan, gure segurtasun falta pizten da, beste pertsonak gu baino hobekak direla sentitzen dugulako. Emozio hau ere bi modutara bidera dezakegu:

Lehena: Gure negatibotasunean geratzen gara, biktimarena egiten dugu, ea gure neska lagunak kasu egiten digun, edo maite gaituela esaten edo frogatzen digun.

Bigarrena: Lan pertsonal bat egin behar dugu. Gure buruari zenbat balio dugun gogoraraziz: zoragarria naiz, alai, zintzoa, entzule ona, lagunkoia, polita, sexualki aktiboa, enpatikoa... ez banau maite, harentzat kalte, edo ez gara elkarrekiko bateragarriak.

- **Inbidia** sentitzean, aldiz, pertsona batek duen ezaugarri batengatik gaude bekaizti. Beste pertsona baten ezaugarrietan guk ez dugun kualitatea ikusten dugu.

- ♦ Lagun bat jendearen aurrean bere ideiez argi eta lasai hitz egiten ari denean, lagun horren ezaugarri horrextaz gaude bekaizti.

- ♦ Haur batek beste hauraren



marraskia ikustean, inbidia senti dezake marraski hori bezain polita egiteko gai sentitzen ez delako.

Inbidiarekin ere bi biderapen ezberdin egin ditzakegu:

Lehena: Inbidia sentitu dugun pertsona hori apaletsi: ez da hain polita egin duen hori, ez da hain ona; gainera, ziur aski beste norbaitek egin edo lagundu dio... Bekaizkeria da hemen nagusi, gure hizkuntza garatuak dioen bezala, emozioa negatibo bilakatu da.

Bigarrena: Beste pertsona baten inbidia dugunean, zertaz garen bekaizti ohartu, eta lan egin berak duen horixe guk lortzeko. Beti ez dugu lortuko; baina, lortzen saiatu garela jakiteak, gure bidean positibo gabiltzalarik, biziarazten gaitu.

- ♦ Beñaten inbidia dugu saskibaloian ona delako. Biderapen positiboan, kontzientzia hartzen dugu gure emozioa ulertuz eta onartuz: "Beñaten inbidia dut, nik ez baitakit saskibaloian ongi egiten. Beno, onar dezaket, frustrazioa onartu eta kitto... edo lan egin dezaket ezaugarri hori lortzeko. Bai? Eta, ostiralero libre dudan ordu bat entrenatzeari ekiten badiot? Ideia ona!"

Beno, terminologia asko egon arren, ideia nagusiak ulertzea espero dut. Datorren hila-betean haurren jelsia eta inbidia jorratzeari ekingo diogu. Nola lagundu emozio hauek era adimentsu batean bideratzen? Zer egin haur berri bat datorrenean? Zergatik sentitzen dira anai-arrebak elkarren jelskor?

Ondo izan, eta gogora ezazue zenbat ezaugarri positibo duzuen, denok gara zoragarri gure ezberdintasunean. Ez ahantzi, ezberdintasunak aberasten gaitu!!!!

Mapi Urresti Ortiz

**KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Abendua heldu da. Abenduaren 21ean, ipar hemisferioan negua hasten da, eta hego hemisferioan, uda. Wikipedian begiratu besterik ez duzu. Entziklopediaren aro librean bizi gara.

Luzebidea

Aro moderno eta librea Aomen da gurea. Espainiako Estatuko (horrela izendatzea *demodé* omen dago, naski) demokrazia aroaren hasiera gogoratu zait negu hasiera honetan. Trantsizioa delakoa gauditua zen jada, *Tejerazoa* iragana zen, alegia.



Ordurako demokrazia *Isidorok* sendotuta zegoen, edo bermatzen hasia, *bederen*.

Luis del Olmo demokrata *de prok Protagonistas* saioa gidatzen zuen *Radio Nacional de Españan*. *Tip y Coll* umoregileak haren *El Estado de la Nación* ataleko izarrak ziren. Honelako hitzek halako algarak jalgiazarzen zituzten euskaldunon bizkar: “Los vascos no hacen Manifestaciones sino Manifestapenak”, *Tipek*. “¡Qué pena!”, *Colle*k.

Are ausartuagoak ere baziren: “Los vascos no follan ni aún que se manifesta penen”, zioen *Tipek*. “Hila más fino *Tip*”, ziotson *Colle*k. “Venga *Coll*, que en vascuene no hace el amor ni Garaikoetxea, ni el lehendakari, vamos”, errepi-katzen zuen *Tipek*. “En euskaras, as, as, ahora se dice en euskaras... as.. as”, *Colle*k.

Ez du euri-jasa eskas bota harrezkero. Tiroak, bonbak eta trumoiak ere ez dira gutxi erori edo bota ere. Bego hor.

Saltu nola *Ager* aldeetan daukat jatorria, jatorria eta zoria. Lizarra aldera bueltatzeko zoria izan nuen trantsizioa kontsolidatu zenez geroztik urte askotara. *Iruneroko* orriotan kontatu ditut iraganean, Deierri eskualdeko gure aita-amen edota aitona-amonen gaineko hainbat pasadizo. Hala nola, uda garaiko arratsalde luzeetan, etxeko hau-

rrak –edo hurrek– “traba” egiten zuelarik gure antzina-koek zerabilten “estrategema”.

– Hale, venga, ve a casa del tío y la tía y diles que te den el *Estate y la Tenedera*–, esan ohi zioten etxeko seme edo alabari. Osaba-izeben etxean

jada, osabak ez bazuen izebak, *trepeta* bitxiena eskuetan zuela zera ziotson *chiquillo/ari*:

– Toma, ten! Estate ahí un rato jugando, majjico.

Harrez geroztik, denboran puskaz geroago, Sakanako Lizarraga herrian ikasi dut, haren euskarazko aldaera. Aldaera eta bizipena. Izeba, ama eta bi lehengusinekin berriketan ginen duela gutxi. Lehengusuek euren ama eta nirearen gogo lausotuak bizi-arazi zituzten, baita nirea bizitu ere, nire pozerako.

– Ama, akordatzen zarie, gure aita zenak nola esaten zigun?

– “Zer?”, izebak. “Ba, hori. Zoazte osaba Cesareoren etxera eta *Luzebidea* emateko esan”. “A, bai, bai” izebak. “Akordatuko ez naiz, ba!”.

“Osaba agertzen zen atera. Aitareen mandatua egin eta jolasten geratzen ginen. Handik puska batera osaba agertzen zen eta...”

– Zoazte etxera lasai. Esan aitari *Luzebidea* neuk e(ra)mango diotela geroago–.

– Eta zuk, ama, gogoratzen al duzu?, neronek. “Bai, hala esaten ziguten ere zuen aitona-amonnek. Jexux, haiek garaiak!”.

MIKEL ASURMENDI

P. S.: Miren eta Jone lehengusinei esker, eurei eskainia. Bide luzean eta maitasunean, euskaldun irauenen dugu guk ere.

Gasolindegian eskuetan heldu naiz urte hondarrera. Liburua Yurre Ugarteren ekarria da, halere. Bidasoan hasi eta Bidasoan amaitzen den emaria. Zazpi errekastok osatutako ibaia.

Fantasia, errealitate jasanezinaren ehule

L iteratura bizitzaren metafora da. Kontua da, egileak bizitzarekikoak –egileak kontatzen dizkigun istorioaren osagaiak eta pertsonaiak– nola moldatzen edo ekartzen dituen literaturara. Yurre Ugartek *Gasolindegian* liburuan honela ekarri du nire ikuspegi aparetik –handi-handika erranik betiere–: Behobia-Ventas autobusean doa protagonista. Lanera doa. Gasolindegira. Arantoki baserria agertzen da, besteak beste. Liburua *Gasolindegian* deitu dio, ez Gasolindegia. Erran nahi baitut, espazio batetik begira eraikitako errealitatea da liburukoa. Bidasoan gaude, baina gasolindegia Parisko Nôtre-Damen kokatua dela diosku narratzaileak. Pertsonaia bat agertzen da koadroan: konkorduna. Pintzelada bat da. Pintzelada funtsezkoa, baina. Koadroa fantastikoa da, dudarik gabe. Gertatzen dena erreala da, haatik.

Liburua Bidasoan hasi eta Bidasoan amaitzen den emaria dela esan dut. Zazpi errekastok osatutako ibaia. Hori nire koadro/iruzkin honen metafora txikia da. Liburuaren metaforaren arabera, bigarren atalean edo errekastean protagonista agertzen da, istorioaren kontalaria. Koadroak maite dituen pertsona dugu, pertsona fantastikoa edo margolaria. Rut Purrut goitizena du. Koadroaren hurrengo ekarrietan, errekastotan, espazioak eraiki eta pertsonaiak nahasten



Liburua: *Gasolindegian*
Egilea: Yurre Ugarte
Argitaletxea: Alberdania

ditu kontalariak. Protagonista edo kontalaria Arte Ederretan lizentziatua da eta Gasolindegian lan egiten du. Bere familia eta Villa Calypso sartu ditu koadroan jada, baita Claudiu errumaniarra ere. Claudiu eta kontalaria dira istorioaren hari nagusiak, biak ala biak dira zazpi errekastok osatzen duten paisaiaren ehuleak.

Ez dakit, irakurle lagun hori, jabetu ote zaren iruzkin honen bitartez marrazten saiatzen ari naizenaz. Erran dezadan, labur-laburrean *Gasolindegian* liburua oroz gaisetarik istorio fantastikoa dela, istorioa bizitza oso erreal-errealen funtsatua.

Gasolindegian margo gisa ikusirik, surrealista da. Hau da, protagonisten bizipenek, errealak izanagatik, errealitatea gainditzen dute. Kontatutako gure mundua irudika dezakegu, baina aldi berean errealitatearen oso gaisetarik dabilta.

Bref: istorioaren edo koadroaren osagaiak Bidasoan aurki ditzakezu. Protagonistak edo kontalariak errealitatea jasateko, baina (gure munduaren espazio erreala bada, gasolindegia dugu horietako bat), espazioak nahasten eta pertsonaiak fantastikoak –konkorduna, kasu!– bihurtzen ditu bizitza eramangarriagoa izan ahal izateko.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Abenduaren 7tik 19ra

- Euskadiko Kutzaren aretoan Pablo Fermin Oronoz artistaren erakusketa.

Abenduak 15

- Udal liburutegian, 18:00etan, hitzaldia, Adiskidetuak Kulturarteko Elkartek antolatuta.

Abenduak 18

- Amaian, 12:00etan, Irun Hiria Musika Bandaren haurrentzako Gabonetako kontzertua.

Abenduak 19

- Amaia KZn, 17:00etan Shakespeareren "La tempestad", La Companya del Princep Totilau taldearen eskutik.

Abenduak 19



Gabonak Irunen

- Olentzero eta Jaiotzen erakusketa, Amaia KZn, abenduaren 16tik 26ra,

Abenduak 21

- Santo Tomas eguna. Goizean, Urdanibia plazan, Santo Tomas Azoka. Egun guztian zehar, txistorra txosnetan.



Abenduak 24

- Olentzerori ongietorria. Jarraigoa Artaleku kiroldegiko aparkalekutik 17:30ean abiatuko da.
- Urdanibia plazan, 19:00etan, Olentzero eta Eguberrietako kanten Jaialdia.

Urtarrilak 4

- Errege Magoen laguntzaileek haurren gutunak bilduko dituzte urtarrilaren 4an, arratsaldeko lehenengo orduan hasita, Udaletxean.

Urtarrilak 5

- Errege Magoen kabalkadak ohiko ibilbidea egingo du hiriko zentroko kaletan barrena.

- Junkal elizan, 20:00etan, Gabonetako ongintzako kontzertua, MA NON TROPPO orkestraren eta AMETSA Abesbatzaren eskutik. Zuzendaria: Fernando Etxepare Gómez. Antolatzailea: Rotary Club Bidasoa.

- Euskadiko Kutzaren aretoan, Mercedes Aguirreran eta Ignacio Manuel Urigoitiaren pintura-lanen erakusketa.

Abenduak 22 -30

-ADIF-en tren geltokian, *Trenbidea eta industria Irunen* izeneko erakusketa.

Abenduak 21 - Urtarrilak 9

Liburutegiko jarduerak

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIAK: Abenduaren 15ean. *Amets egiteko ipuinak*. Ordua: 17:30ean.

HELDUENTZAKO IPUINAK.

Abenduaren 16an, 19:30ean.

Kontalaria: Coralia Rodriguez. Ipuina:

Con mi acento te cuento.

CARLOS DE AGUSTINEN MINTEGIA.

Abenduaren 16an, 17:00etan. Gaia: 2010eko bigarren seihilekoko literatura.

POESIA TALDEA. Abenduaren 20an, 17:30ean. Gaia: Andres Trapiello.

IRAKURKETA TALDEA. Abenduaren 21ean, 19:00etan. Gaia: Charlotte Brönteren *Jane Eyre* lana.

LIBROFORUM TAILERA. Abenduaren 13an, 19:00etan Gaia: *La hija del sepulturero*. Joyce Carol Oates.

IDAZKETA TAILERRA. Abenduaren 20an, 19:30ean, 2. atala.



Pinópolis: Eguberritako haur parkea Ficoban



Zer da Pinópolis?

- Pinópolis Aisia Hezitzaileko Parke bat da, Eguberrietako Haur Parkea.
- Haurrentzako hiria da; bertan, modurik eraginkorrenean ikasten da, jolastuz, alegia.
- Pinópolisen haurrek gustukoan dituzten lanbideak ikasten dituzte, handiak direla-eta.

Ficoban, egun hauetan:

- Abenduaren 18tik 20ra.
- Abenduak 22 eta 23.
- Abenduaren 26tik 30era.
- Urtarrilak 2 eta 4.
- Urtarrilaren 7tik 9ra.
- Ordua: 15:00 – 20:00.
- Abenduaren 21, 24, 25 eta 31n, eta urtarrilaren 1ean itxita.

Tekno-Iraultza erakusketa

Abenduaren 17tik urtarrilaren 9ra, Jenaro Etxeandia plazan, Tekno-Iraultza erakusketa. Erakusketa hiru eremutan banatuta dago, non bisitaria teknologiaren munduko aurrerapen iraultzaileenak ezagutuko dituen eta haiekin jolasteko eta esperimentatzeko parada izango duen.

Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- LEIOAKO MAITASUN GUTUNEN LEHIAKETA. Edonok parte har dezake. Epea: Abenduak 31.

- PORTUGALETEKO KOMIKI LEHIAKETA. Nahi duenak parte har dezake, hala banaka nola taldean. Epea: Martxoak 4.

Ikastaroak



- KIROL ETA AISIALDI EKITALDIE-TAKO aurkezleentzako ikastaroa. Antolatzaileak: Donostiako Euskararen Patronatua eta Foru Aldundia. Noiz: Utarrilaren 22tik apirilaren 2ra arte. Epea: Abenduak 20.

Lana



- IRUNGO UDALAK HEZITZAILE

TITULUDUN-KALIFIKATUA behar du. Izaera: Lehiaketa-Oposizio librea. Hizkuntza-eskakizuna: 3.a derrigorez. Epea: Abenduak 21.

- CSIC-EN LAN POLTSA. Baldintzak: Diplomatura, Lizentziatura edo Doktoretza burutua izatea. CSICeko lan eremuetan eskarmentua izatea. Epea: Martxoak 1.



- ELURRETAN LAN EGITEKO ESKAINTZAK.

www.irun.org/igazte orrian aurkituko dituzu.

harpidetza



IRUN
843 506 444
843 506 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska izaiguztu, eta astero bidaliko dizugu informazioa sare oxterre nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZIENAK
HEZKIDENA
P.K. BERRIA
POSTA ELEKTRONIKOA

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pídennoslo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.



Osteguna, 16

Mondragon Unibertsitatea-Bidasoako Campusa
(203. ikasgela, 17:00)

2009ko Lehiaketa saritutako film laburren proiektzioa

Bidasoa Saila - Osteguna, 17

Martindozenea Gazteleku - 19:00

- Hasta que llegó su almohada (Brokeback Pillow)
- Nuevos tiempos
- Eventual
- Todo limpio
- Lacruaquet

Bidasoa Saila - Osteguna, 23

Hitzaldi aretoa - 20:00

- Hasta que llegó su almohada (Brokeback Pillow)
- Nuevos tiempos
- Eventual
- Todo limpio
- Lacruaquet

	Igandea 26	Astelehena 27	Asteartea 28	Asteazkena 29
LABUR GEHIAGO SAILA. Hitzaldi aretoaan 19:00etan.	<ul style="list-style-type: none"> - Diez años y un día - Hominidos Blancas - Madre sólo hay una - Protopartículas - Art. 18 - Cuando corres 	The Freak Gate (and The Shadows Keeper) - Sandra - El terriblemente temido cuco - Juan con miedo - Limbo	<ul style="list-style-type: none"> - Cocodrilo Nilo - Ausencia - Comer viendo la tele - Kitoko - El rayo y la sirena 	Amaierako gala. Amaia KZn, 19:00etan.
BIDEO SAIL OFIZIALA Amaia KZn 20:00etan.	<ul style="list-style-type: none"> - Tabú - Ofelia 	<ul style="list-style-type: none"> - Tabú - Ofelia 	<ul style="list-style-type: none"> - Los 4 McNifikos - Angoixa - El agujero 	<div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <ul style="list-style-type: none"> - Angeluko FIFAVA Jaialdian Epaimahai Gaztearen Saria jaso duen film laburren proiektzioa - Bidasoa eta Labor Gehiago sailetan saritutako lanen proiektzioa - Sari banaketa - Sail Ofizialean (Zinema eta Bideoa) saritutako lanen proiektzioa </div>
ZINEMA SAIL OFIZIALA Amaia KZn 21:00etan	<ul style="list-style-type: none"> - Fábrica de muñecas (Dolls Factory) - Voltereta - Pablo - ¡Qué divertido! 	<ul style="list-style-type: none"> - El orden de las cosas - Viejos perdedores - Amista 	<ul style="list-style-type: none"> - Merry Little Christams - Campás - Uyuni 	



Biltegi eta bulegoak:
Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

Denda:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoen biltegia.
- Lanpara erakusketa.